



BIZIKLIK!

Kostuen egitura

Zein dira gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

- **Ekoizpen-materiala:** bizikletak egiteko zenbait material beharko ditugu, hala nola, metalezko piezak, elektronikako materiala (kableak, plakak...), etab. Horretarako, enpresa siderurgiko bat beharko dugu, materiala hornitzeko. Gainera, makinak beharko ditugu ekoizpen-prozesua azkartzeko. Kostu aldagarriak izango dira hauek, horiek duten salmenta-bolumenaren arabekoak. Eskala-ekonomikoak salmenta-bolumenaren arabekoak izango dira ere, geroz eta unitate gehiago orduan eta kostu baxuagoa izango da (20 bizikleta baino gehiago erosiz %7ko deskontua egongo da).
- **Garraiorako materiala:** bizikletak babesteko garraioan zehar, kartoizko kutxetan sartuko ditugu eta kutxen barruan material babeslea ipiniko dugu. Material guzti hori birziklagarria izango da, gure enpresaren helburu nagusia ingurumenarekiko begirunea sustatzea baita. Zeharkako nahiz aldagarriak diren kostuak izango dira hauek, ez dira gure kostu garrantzitsuenak, eta materialaren kantitatea edo material mota aldatzen joango gara.
- **Garraioa:** bizikletak leku batetik bestera garraiatzeko, leku zabala duten kamioiak erabiliko ditugu, aldi berean ahalik eta bizikleta gehiago garraiatzeko. Hauek kostu aldagarriak izango dira, ibili beharreko distantziaren eta garraiatu beharreko kantitatearen arabera.
- **Langileak:** bizikletak eraikitzeko, espezializatutako langileak beharko ditugu; adibidez, diseinurako langileak, elektrizistak, mekanikariak eta bestelako teknikariak. Horrez gain, enpresaren finantzak eta salmentak kudeatzeko langileak izango ditugu ere. Hauen soldatak kostu finkoak izango dira (gure enpresa asko hedatzen ez den bitartean).



BIZIKLIK!

Kostuen egitura

Zein dira gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

- **Enpresa sortzeko:** gure aurrezkien %60a baliabide fisikoetarako izango da, %16a langileak ordaintzeko eta %9a garraio enpresarako. Soberakoa gorde egingo dugu enpresaren beharren arabera (soldataren bat igo, materiala gehiago erosi, diru-arazoak, merkatuen gora-beherei aurre egiteko...).
- **Hedapen-ekonomiak:** baliabide berak erabiliko ditugu bizikleta mota ezberdinak sortzeko (ohiko bizikleta eta eliptikoa, esaterako).
- **Kostu sozialak:** gure enpresaren publizitatea egiteko *marketing* enpresa batekin lan egingo dugu. Garraio enpresa funtsezko elkartea daukagu ere. Biak bezeroengana iristeko.

